

BANDOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak herri txikietan jarduera fisiko eta kirol eremuan hainbat behar ikusi ondoren, proiektu bat lantzen hasi da, honen helburu nagusia Gipuzkoako beste herri guztiek dituzten aukerak guk ere izatea delarik.

Foru Aldundiaren proposamena kirol batzorde bat osatzea da herriko eragile ezberdinekin:

- Udal batzarraren ordezkari bat.
- Guraso elkarteko ordezkari bat.
- Adin ezberdinak ordezkatu dezaketeenak: gazteak, helduak, 3. Adinekoak,...
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat.
- Idazkari bat, Kirolartekoa.

Batzorde honen eginbeharretako batzuk hauek dira:

- Udaleko kirol egitura aztertu eta diagnostikatzea.
- Kirol jardueretako plan bat prestatzea.
- Kirol alorreko jarduera plana garatzeko beharrezkoak diren irizpide eta baldintza ekonomikoak, materialak eta giza mailakoak finkatzea.

Proposamen hau aurkezteko Foru Aldundiko ordezkari bat etorriko da.

Deialdi bat egiten dizuegu herritar guztioi proposamen honen aurkezpenera agertzeko **MARTXOAREN 26AN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN KULTURETXEAN.**

Herriarentzat gai interesgarria dela pentsatzen dugunez, zuen partehartzea eskatzen dizuegu.

Larraulen, 2009ko martxoaren 17an.

Alkateak